

# URDAIBAI

2017  
zenb. 09  
.....

© MAGAZINE



## Maier, Ajangiztik mundura

- ANA URRUTIA BEASKOARI ELKARRIZKETA
- OKA JAUREGIAREN DISTIRA
- ELATXOBEKO PLATAFORMA ZELEBREA
- GEURE ANTXOA, ZAPORETSUA ETA ELIKAGARRIA
- 5. EDUKIONTZIA HELDU DA BUSTURIALDERA

# Trenbide eraikuntza eta kudeaketa, gure DNA

ETSk, Eusko Jaurlaritzaren esku dagoen erakunde publikoak, esperientzia luzea du trenbide azpiegituren diseinuan, eraikuntzan eta mantentze lanetan. 250 pertsona baino gehiago eraginkortasunaren, iraunkortasunaren eta bikaintasunaren bila tren kudeaketa. Gure izateko arrazoia da.



Abiadura Handiko Lineak



Trenbide Metropolitarrak



Tranbia Sistema

PERTSONA  
HELBURU



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO



## PARTEKATUTAKO ESFORTZUA beti da gakoa

**K**irolan, enpresan, bikotean, familian, politikan, bizitzan... arrakasta beti dago partekatutako esfortzuan oinarrituta. Horrela, norbanako esfortzuak gehitu egiten dira eta helburua partekatzeagaz batera berau lortzeko neurriak hartzea suposatzen dau. Norabide bardinean aurrera egitea da asmoa. Esperientzia arrakastatsuen atzean jokabideen batuketa dago, huts bakoa bada bez. Elkarri eragiten deusoen agente ezberdinen testuingurua erabakigarria izan ahal da, baina espiritua mantendu ezkerro, etorkizuna egongo da.

Ideia izatea beharrezkoa da, bistaratu, partekatu, taldea egin, bakoitzarena helburuaren eskura jarri; proiektua garatu beharko da, baliabideak topau, babesak bilatu, ikuspegi globalagaz emon pausu bakoitza... saiatu, erratu, zuzendu, esfortzuak egin... baina espiritua mantendu ezkerro, etorkizuna egongo da.

Industriaz ari gara? arrantzaz? zerbitzuetaz? politikaz? kirolaz? ikaskuntzaz? erlijinoaz? familiaz?... esparrua ez da erabakigarria. Komunikatzea, motibatzea, tartean sartzea... konfiantza izatea, norbanako zein taldeko jokabideak dira, baina beti be jarrera pertsonalak dira, eredu arrakastatsu baten azpian daudenak.

Eredua garrantzitsua da, errespetua beharrezkoa da, pertsonak eta partekatutako esfortzuak dira giltzarriak. Automozino piezen diseinuan eta kalidadean, zaharbarritutako ondarean, sekulako tirakadan, geure nagusien zainketan, mugikortasun mekanismo baten asmakizunean, antxoen gozotasunean, birziklatzearen erantzukizunean... 1937ko apirilaren 26aren jasanezinaren ondoren Gernika birjaiotzean... jarraibidea espiritua da.

### HARPIDETZA

Aldizkaria jaso nahi badozu, gurekin harremanetan jarri hemen:  
komertzial@nuevaeuropa.com / tel.: 94 625 06 06  
www.urdaibaimagazine.eus

URDAIBAI MAGAZINE NUEVA EUROPA S.M-REN  
LANTALDEAK BURUTU DAU

Urdaibai Magazinek ez dauz bere gain hartzen  
hirugarrenek emondako eritxiak edo egindako komentarioak.

### ARGITARATZAILEA

NUEVA EUROPA S.M  
Carlos Gangoiti, 15, behea  
Gernika-Lumo (Bizkaia)  
nuevaeuropa@nuevaeuropa.com  
www.nuevaeuropa.eus

LEGE GORDAILUA: BI-153-2015

Aldizkari honek **Bizkaiko Foru Aldundiaren** laguntza jaso du.



# AURKIBIDEA

## ERREPORTAJEA

**04** MAIER,  
nazioarteko taldea, bihotza  
Busturialdean

## VISIT URDAIBAI

**09** ASTELEHENA  
1937ko apirilaren 26a,  
Beldurraren Eszenatokia.

## ELKARRIZKETA

**10** ANA URRUTIA BEASKOA,  
Mediku-gerontologoa  
*Ahots bako* Kolektiboaren ahotsa

## LEKUKO

**14** OKA  
JAUREGIA

## KALERIK KALE

**16** ELANTXOBE  
360°

## SAL TSA-PORRU

**18** GURE ANT XOARI KULTUA,  
hazten dagoen  
fenomenoa

## BERDEAN

**20** MARROIAGAZ... BERDEAGO!  
5. Edukiontziatik ortura,  
zaborraren ahalmena

## BETI-JAI

**22** MURUETAKO SOKATIRA TALDEA,  
konpromisoak eta ilusinoak  
sokatik tiratzen dabe

Erreportajea



**ferrovial**  
servicios

**SIEMPRE AL SERVICIO DEL CIUDADANO  
CUIDANDO EL MEDIO AMBIENTE**

Bekoibarra, nº 31 / 48300 Gernika-Lumo / Tel. 94 625 47 27

**L&G**  
LOGÍSTICA

**TRANSPORTE,  
ALMACENAJE,  
DISTRIBUCIÓN...**

Txaporta industrialdea, 2-1  
48300 Gernika - Lumo  
(Bizkaia)

Tel. 94 625 03 85  
Tel. 94 625 75 40  
e-mail: lgk@lgk.es



# MAIER, NAZIOARTEKO TALDEA, BIHOTZA BUSTURIALDEAN

**M**aier Sozietate Kooperatiboa enpresa ezaguna da Busturialdean. Automozinora dedikatuta dago eta bere indarra bere antolakuntzaren izaeran oinarritzen dau, *boterea bazkideen eskuetan utziz eta ez kapitalan. Bazkideek egiten dabeen lanaren arabera emaitzak banatu egiten dira.* Lehiakorra izateko armak ikerkuntza eta barrikuntza dira estrategikoki. Bere borondatea, Busturialdean geratzea da, nazioarteko proiektzioa baztertu barik.

Busturialdeko ekonomia industrialean Maier erreferentziatzko enpresa da. Kooperatibismoa bere lan-eredua eta balio bereizgarria da. Kooperatiba soberanoa denez, MONDRAGON korporazioan dago bazkideen borondatez. Hauek jabetzan, erabakietan eta emaitzetan parte hartzen dabe. Pertsonak dira bere indarguneak eta bere errendimentuaren giltzarriak, *"Maier familia handia osatzen dabeen guztiek lana ondo egitea ekarten dau honek... boterea bazkideetan dago, pertsona bakoitzeko boto bat, eta ez kapitalan. Langilea bere lanaren jabea da eta, beraz, enpresaren jabea da"*, nabaritzen dau Julen Madariagak, Maier Taldearen Presidenteak.

Martxan hasi zanetik, 1973an, Maierrek erronka barriei egin deutse aurre. Sasoi eta merkatuetara egokituz joan da, gaur egungo enpresa bilakatu arte. Pertsonen trebakuntzan eta diziplina anitzeko lan-talde ezberdinen lanean oinarritzen da bere eboluzioa. Hasieratan etxetresna elektrikoaren sektorean lan egin eban eta geroago automozinoan, telefonia sektorean be aritu zan sasoi baten. Gaur egun, enpresa barrizaila da, lehiakorra eta nazioarteko proiektzioagaz; automozino sektorean erreferentea da. Sektore honetan dihardu, bere garapena eta produkzioaren jarduera osoa honetara emonez.



Elikadura-segurtasuna eta ingurune-segurtasuna

Kontrol analitikoak

Autokontrol planak: arrisku sanitarioen prebentzioa

APPCC eta PGH - Igerilekuak, giza kontsumorako urak eta legionelosisia

Diagnostiko integralak

Barne Airearen Kalitatea (CAI), klimatizazioa, iraungitzeak, bizitza baliagarria, bio-diagnosiak

Aholkularitza

Formakuntza



C/ Zabaloa, 13 - Galdakao . T. 944 569 589

www.biotalde.com • info@biotalde.com • biotalde.blogspot.com



Maierek fabrikatutako automozino piezak.

2016an 300 milioi euroko fakturakzinoa lortu eban eta hazkuntza joera honegaz jarraitzeko asmoa dauka, 2017an 363 milioi euroko salmenta aurreikuspenagaz. Diziplina anitzeko talde espiritua eta osagarria bere sei produkzio plantetan dago, Europa eta Asian zehar. MTCtik garapen eta barrikuntza teknologikoa zabaltzen dabe hauek. MTC Ajangizen kokatutako bere zentro teknologikoa da, planta nagusiaren ondoan.

Produkzioesfortzuagaz batera, Maier taldeak ikerkuntza eta barrikuntza inbertitzeko apustua egiten dau, produktua garatzeko. Ondo prestatutako lantaldea dauko, 110 ingeniariarik gorakoa. Honen lanak, Ajangizko kooperatiba sektorearen kointura onuragarrian ezartzeari laguntzen dau, goi mailako bezero kartera dibertsifikatuagaz: BMW, Mercedes, General Motors, Jaguar, Land Rover, Audi, Toyota, Nissan, Renault, Peugeot, Citroen, eta abar.

## Bezeroari balioa erantsi

Ikerketan, produktuen garapenean eta teknologia barriak aplikatzean egiten dau esfortzu handia Maier Taldeak, bezeroari balioa gehitzeko asmoz. Etorkizuna sortzeko eta gero eta konplexuagoa eta globalizatutagoa dagoen merkatuan enpresa lez handitzeko estrategia lehiakor hau, 1995. urtean MTC-ren, Maier Technology Center-ren sorreran errotzen da. 126 profesionaletik gora lan egiten dabe gaur egun guñe honetan, gehienak ingeniariak. Hauek, barrikuntzaren eta abangoardia industrialaren goi mailan egoten jarraitzeko ikerketa lana burutzen dabe. Bezeroen ibilgailuen eredu barrien garapen beharrezanez erantzuna emotea, kostuak hobetuz, MTC-ren izateko arrazoia da "MTC dago barrikuntzaren esfortzuen buru baina kooperatibaren alor guztien ekarpenekaz. Ibilgailuen estetika joera barriak identifikatzea da bere funtzioa eta joera hauek industrializatzeko aukerak zehaztea be. Produktuen garapen barriak egitea eta hauek industrializatzea da bere bigarren funtzioa", azaltzen dau Maier Taldearen Presidenteak.

Automozino sektoren enpresaren nazioarteko proiektzioa bere garapenerako funtsezkoa da. "Automozinoaren bezeroen estrategia jarraituz hazi da Maier munduan. Aintzat hartzea bizirik irauteko beharrezana da, jarduera mantentzeko, hazteko eta Ajangizen enplegua sortzeko".



# EZARPENA



## ● EKOIZPEN-INSTALAZIOAK


Gernika-Lumo.  
Nafarroa.  
Galizia.  
Erresuma Batua.  
Italia.  
Txekia.  
India.

## ● TEKNOLOGIA ZENTROA

Gernika-Lumo.

## ● ALIANTZAK

Turkia.



## Bertako konpromisoa eta belaunaldi-konpromisoa

Ajangizten geratzeko erabakia bazkide-langileen erabakia da. Maiarren lan egiten dabena 1150 pertsonetatik, %90a Busturialdekoak dira. Datu hauek eskualdeagaz bere-berean konprometitu dagoen enpresa bat dela adierazten dabe. Inguruan lanpostuak eratzea eta aberastasuna sortzea dira bere *misioaren* arlo esplizituak. *"Eskualdearen etorkizuneko garapena alde aurretik ezagutzea gatxa da. Izan be, eragile askoren menpean dago. Baina Maiarren borondatea lanpostuak mantentzeko ahalik eta esfortzurik gehien egitea da, eta ahal izanezker, lanpostu barriak sortzea be".*

Enpresa belaunaldi barriei hurbiltzea eta orientazioa eta prestakuntza lanak egitea, *Discovery Day* izeneko bekadunen jardunaldia bezalako ekimenetan gauzatu, etorkizunera begiratzeko eta hau aurreikusteko bere era da. *"Gazteek beste garai batzuetakoek baino prestakuntza hobea daukatela uste dogu, baina enpresek merkatu globalean lehiakorak izateko behar dabezen beharizanetara egokitutako orientazioa behar dabe gazteek. Geure kasuan hizkuntzen trebakuntza falta igartzen dogu, euskara eta gaztelaniaz gain beste hizkuntza bi gehiago, hau da, lau hizkuntza".*

Maiarren gehien eskatzen diren lanbide-prestakuntzak garapen eta produkzio injinerutzak dira, mekanika, antolakuntza eta kimika espezialitateetan. Fabrikazinoan, Maiarren beharizanek lanbide-prestakuntza teknikora jotzen dabe (mekanika, elektrika, eta abar) edota Goi Mailako graduak (LH2). Guztiek diziplina anitzeko lan-taldeak osatzen dabez.

Emakumezkoen enpleguari dagokionez, Maiarrek parekatze bidean aurrera egiten dau. Langileen heren bat emakumeak dira.

Busturialdeko enpresa eragilea izatea erantzukizun garrantzitsua da. Maier Sozietate Kooperatiboak naturaltasunez bizi dau egoera hau. Bere kooperatiba eredua, barrikuntzaren bitartez bezeroari balioa emoteko bere estrategia enpresariala eta bere langile gehienak eskualdekoak izatea gogor eusteko formula da.



## EUSKADIKO ZURA ZURE BIZITZAN LA MADERA DE EUSKADI ESTÁ EN TU VIDA

Gure basoetan egiten dugun kudeaketa iraunkor bati esker hemengo zurarekin egindako produktuak erabil ditzakegu. Produktu paregabeak, berriztagarriak eta kalitatezkoak, ingurumena errespetatzen dutenak.

Gracias a una gestión sostenible de nuestros bosques podemos disfrutar de productos elaborados con madera local. Productos únicos, renovables y de calidad que respetan el medio ambiente.



KOLABORATZAILEAK / COLABORADORES



EKONOMIAREN GARAPEN  
ETA LEHIAGORTASUN-BELA  
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO  
ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD

[www.gure-zura.org](http://www.gure-zura.org)







## ASTELEHENA 1937ko APIRILAREN 26a, BELDURRAREN ESZENATOKIA

80 urte igaro dira zoritzarreko merkatuko astelehen hartan Kondor Legio alemaniarrek Gernika-Lumo bonbardatu ebanetik. Herriak memorian daraman testuinguru historiko hura, gertaerak, egun horretako suntsiketak, "1937. urteko apirilaren 26a, Bonbardaketaren Ibilbidea" izeneko bisita gidatua kontatzen dira. Hain zuzen be, gure historiako kapitulu bati buruzko hausnarketa egiteko eta kontzientziazteko aukera, etorkizuna lortzeko atzean utzi beharreko kapitulua.

**T**urismo historikoak, eta kasu honetan, baita, gerra-turismoak be, 1936ko gerra zibilaren kapitulu ilunenetariko bat ezagutzeko aukera dauke Gernika-Lumon.

"1937. urteko apirilaren 26a, Bonbardaketaren Ibilbidea" bisita gidatuak, aberastasun dokumental handiz kontatzen dau Gernika-Lumoko eta bertako biztaleen gaineko ez-bidezko bonbardaketa tragiko hura. Bisitak, bizi izandako izugarrikeriaren eszenatoki nagusiak izandako haiek azaltzen dauz. Errenteriko zubiaren suntsipenaren geldieraren komunikaziozko arrazoi militarrek azaltzen dira, tropen sarrera-irteera ezinbesteko zentroa zelako; baita plazan bizi izandako ikara, herriaren erdigunean, izan be, asteko merkatu eguna zan, eskualde osoko bizilagunak

biltzen ebazan jarduera; Astrako aterpean bizi izandako esperientzia, babeslekuetako beldur sentazioak eta proba maniobra izaeraren konfirmazioa, izan be, trebezia falta agerian geratu zan Juntetxea eta bere ingurua zutik utzi ebezelako, euskal askatasun eta eskubideen sinboloa.

Bisita ibilbide hunkigarria da, bata besteari konektaturiko azalpenak jarraituz aurrera doana, bizirik irten zirenen lekukoen bizipen historiko grafiko, bitxikeri eta pasadizoz bete.

Proposamena garatzeko, Gernika-Lumoko Nueva Europa SL enpresak, Gernikazarra Historia Taldea izan eban lankide, 30 urtetik gora lekuko historia ikertzen daraman taldea.



# ANA URRUTIA BEASKOIA

*Mediku-gerontologoa*

## *Ahots bako kolektbioaren* **ahotsa**

Q

ernikar honek, Emilio Beaskoa mediko gernikarraren loba, Torrezuriko bazkidezuzendaria den mediko-geriatra honek, geure nagusien zainketa goitik behera aldatu dau ekintzailtzaren bitartez, motibazinoa, autonomia printzipioaren garapenean eta pertsonaren duintasunean oinarrituta. Errealitatea aldatu daitekela oso-osoan dago eta egoitzen bere kudeaketa eredu mundura zabaltzen buru-belarri dabil. Nagusiak ez lotu, tolerantzia lako baloreak landu, tratua tresna gisa erabili eta zaintzen dogun pertsona erdian jartzean oinarritzen da.

## Geure nagusi askoren bizi kalitatea hobetzearen arduraduna zarela esan dezakegu...Zelan hasi zan guztia?

Zaintzen gagozen pertsonak dekozen eskubideak dira gehien arduratu nauena. Frantzian ikasi neban geriatría. Han paziente nagusiaren arreta guztiz ezberdina zan. Hemengo erresidentziatan aurkitzen nebanagaz ez nengoen konforme. Nire buruan eta nire bihotzean zeozer ezberdina egitea neukan. Gauzak aldatu daitezkeela oso-osoan nengoen, horregatik animatu nintzen eta zentroa sortu neban. Nire aita nahastu neban, beste pertsona batzuk bilatu eta Gernika-Lumón, Torrezuri Nagusien Egoitza sortzeko sozietatea eratu gendun, orain 18 urte.

## Ze barrikuntza eragin dozuz Torrezurín?

Torrezuriko erabiltzaileentzako eskubideen zerrenda bat egiteari animatu nintzen. Guztiz barria zan hau. Ideariuma erabiltzeileen eskubideen alde zan. Eta erabiltzailea nigaz konpromiso bat hartzeari konprometitzen dau. Paperean jarri bai baina praktikara eramatea gura neban. Bestalde, laneko hausnarketak azaltzeko langilearen eskubideen gainean be neukan interesa. Ateak zabaltzeko era zan, lan-taldea, transbertsala...pertsonen motibazinaroko mundu zoragarria. Gardentasuna, partaidetza, bardintasun baloreak...da bilatzen dodana.

## Logikoa emoten dau, baina jarraibide hau guztiz barrizalea da geriatría?

Bai, modelo osoa, ezberdina da. Gaur egun aurrerapausuak emoten dira, baina ni hasi nintzenean ez zan horrela. Dialogoa eta gardentasun kultura sustatzen dogu, guztiaren oinarrian dago. Geure artean, eta bezeroa eta erabiltzaileagaz. Familiek badakite bulegoen ateak zabalik daudela, euren etxea dela hau, ez dagoela ordutegirik... Hau hasieran guztiz barria zan. Torrezurín betidanik izan da horrela 18 urtetik hona.

## Nagusia ez lotzeko sisteman lan egiten dozu. Zure leit motiv profesionala da hau?

Orain 12 urte lan egiten dot sistema honegaz, Torrezuri Taldean 2006an hasi giñen eta kanpora atera gendun 2010ean. Sasoi hartan eratu gendun "Cuidados dignos" fundazioa, zainketan etika eta duintasuna sustatzeko. Behin proiektua sendotuta, pazienten eboluzioaren datuak batu genduzan. Hobeto zeudela ikusi gendun eta emaitzak

onak zirela konprobatu gendun. Horregatik sortu gendun fundazioa, proiektu eraldatzailea, nire ideiak ateratzeko modu bat, hauek agerian jartzeko. Proiektu sozialak indarra hartu eban eta guztiz poztekoa zan niretzat. Beste zentroek geure kudeaketa eredia ezartzeari laguntzen dogu. Proiektua Estatu osoan dago. Orain 150 zentrok garatzen dabe geure eredia. Aliantzakaz egiten dogu lan. Geure modelo erabiltzen daben zentroak zertifikatu egiten doguz. Geure eskualdean, bakarrik Torrezuri.

## Zertan datza nagusiak ez lotzeko sistema?

Zaintzailearen pentsaera aldatzea da garrantzitsua, aldaketarako kudeaketa egiten dogu. Ez lotzeko alternatibak erabiltzen doguz, ohe baxuak, mugimendu sentsoak edota jagoteko telebistak...baina euskarri gisa. Teknologia erabiltzea baino konplikatuagoa da. Funtsezkoena, zaintzen dogun pertsona erdialdean jartzen dogula da. Bere autonomia topera sustatzen dogu, pertsona horren autonomia printzipioan oinarritzen dogu bere eskubideen garapena. Pazientearen autonomia Legean oinarritzen gara. Honek zaintzaileak pertsonaren zerbitzura egotea egiten dau. Tratua aldatu behar da, tolerantzia landu behar dogu. %100ean pertsonari egokitu behar dogu lana eta lan prozesuak aldatzeari behartzen gaitu honek.

## Orain arte, ez zan horrela? Paziente ez zegoen erdialdean?

Ez, paziente lotu ala ez lotzearen ereduaren aurrean, ezberdintasuna autonomia printzipioa dalako. Erraz ikus daiteke. Zu zaintzeko zu lotu ala ez galderaren aurrean, erantzuna lotu barik zaintzea izango zan, noski. Baina, nik lotura barik ez badakit lan egiten, ez deusut aukera hori emongo. Orduan, lotu egingo zaitut. Nork dauka boterea orduan? Antolakuntzak. Orduan, pertsona ez da nagusia. Zuk esaten badeustazu lotu barik gura dozula nik zu zaintzea, nire antolakuntza errealitatea aldatzeari behartzen nau honek. Trebatu, nire langileak prestau... tratua tresna dela esanez, prozesuak aldatu...Adibidez, paziente batek goizaldeko 4retan izartuten bada, zergatik izartu dan interpretatu behar dot. Paziente altzatu eta lo egiteko pirularik ez deusat emongo. Hori da pertsona erdian jartzea. Konprobatuta daukat, hobeto egiten dabe lo gaixotasuna modu naturalean ateratzen denean. Emaitzak ikustea atsegina da.

# Gure eskualdea bermatuz

Landa Garapen Elkarte / Domingo Alegria enparantza, z/g - 48300 Gernika-Lumo (Bizkaia)  
Tel: 94 625 76 09 / [www.urremendi.org](http://www.urremendi.org) / [urremendi@urremendi.org](mailto:urremendi@urremendi.org)





### 2016an "Emprendedora Social Ashoka 2016" saria jaso dozu, erresidentzien kudeaketa modeloan oinarritutako zeure *Libera-Care* proiektuagatik. Zerk suposatzen dau honek?

Gizarte ekintzailtza, gizarte proiektu bat daukazula da. Ashoka nazioarteko erakundea da, honek munduan gizarte errealitateak aldatzeko gai diren proiektuak burutzeko pertsona bereziak daudela uste dau. Mundu osoan dago eratuta eta errealitatearen bat aldatzeko gai diren pertsonak aukeratzen dabez. Niretzako sari hau proiektua bultzatzeko lagungarria izan da.

### Euskadin nagusien egoitzen arloan oraindik lan asko egiteke dagoela uste dozu?

Etxean askoz be gehiago kostatzen dauela esateko aprobeixatu gura dot. Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeari (GUFE) aholkularitza eskeintzen deusat eta eredu hau jarraituz lan egiten dabe. Bizkaiak ildo honetan egiten dau lan. Baina hitzartutako erresidentzietan, administrazio publikoak ez dauz nik planteatzen dodazen parametroak erabiltzen. Oraindik nagusiak lotu ala ez lotu zentro bakoitzaren erabakia da. Marko juridikoak ondo lotzea erregulatzan dau. Baina nire proposamena aldaketa totala da. Nik ez lotzea proposatzen dot.

### Beste erkidegoekaz konparatuta aldea dago?

Guk hobekuntza bideari ekin behar deusagu, txipa aldatu behar dogu. Andaluziako parlamentuak honako konpromiso instituzionala hartu dauela irakurri dot: laguntza publikoetara eta zerbitzu publikoetara atxikitutako zentroek, nagusiak ez lotzeko programak izan behar dabezela. Eta adibidez, Valentzia eta Kantabrian legeak egiten dabiz. Baina hemen ez dot aurkitu beharrezkoa dan babesia, *ez lotzeko sistemaren alde egingo dogula* argi esatea. Baina ni ziur nago. Erreakzionatu behar dogu. Mundua ez bada konturatzen eta nik hain argi ikusten badot, ekin egingo dot. Diputatuen Kongresuan

agerraldia eskatu dot. Geure nagusiak baloratu arte ez naz geldirik egongo. Hauek ahotsik ez daukate, ahots bako kolektiboa da.

### Trebakuntza funtsezkoa da errealitateak aldatzeko. Zelan ikusten dozu hau?

Gauza interesgarriak daude. Adibidez, Gernika Institutuan irakasleak trebatzeko kurtso bat emoten nabil. Erdi-mailako moduloa erdia da, arlo sozio-sanitarioan pertsonak prestatzeko. Beharrezkoa dan profila da hau. Erresidentzietan gaitasun sozialak daukatezen pertsonak behar dira, toleranteak tratuan be. Institutuan landuko dabean profila da hau eta behar dogun profil profesionala.

### Bestelako ekintza barrizaileraren baten zagoz lanean? Zeintzuk dira zeure hurrengo erronkak?

Neure burua martxan dabil egun osoan. Zainketa eredia aldatzea gurako neuke, ez bakarrik lotu ala ez lotu sistemak, baizik eta pertsonan eta pazientearen autonomian oinarrituz. Beharizan pertsonala eta unipertsonalaren ikuspuntutik zaindu pazientea. Orain horretan nabil, ez bakarrik erresidentzietan baizik eta osasun arlo osoan, arreta arlo guztietan. Hau guztiz iraultzailea dala uste dot.

Erakundeak nahastu eta marko juridikodun eredia sortzea gura dot, autonomia pertsonala erreala izatea. Autonomia Lege bat, pertsonen eskubideak babesteko. Pazientearen eboluzinoa hobeagoa izango dela uste dodalako. Orain Estatu mailan plataforma bat eratzen nabil bi lan ildoak jarraituz: Inersoko adituertzako bat eta ezgaitasuna lantzeko beste bat. Gizarte mugimendu bat sortzea da asmoa, motibatutako jende ekintzaile asko dagoelako. Behin oinarriak ezarrita berez doa.

Liburu bat idazten nago baita be. Bizi izan dodazen kasuekaz. Beti be gauza barriak bilatzen dodaz.

# Kutxabank Hipoteka

# ALDAKORRA

## Euriborra +%0,90<sup>etik</sup>

Lehenengo urteko ITNa: %1,40

UTB Aldakorra: %1,41\*

kutxabank  
**ORAIN**

Simulatu  
salerosketaren eta  
hipotekaren  
gastuak hemen:  
[kutxabanketxebizitzagida.eus](http://kutxabanketxebizitzagida.eus)

Adibidea: 28 urteko bezeroa; 150.000 euroko mailegua (tasazioaren zenbatekoaren %80), 25 urteko epean ordaintzeko. Kuota finkoa, amortizazio-sistema frantsesa. 2017ko otsailaren BOEren Euriborra -%0,106.

(\* Eskaintza honetarako hurrengo baldintzak bete behar dira: hilean 3.000 eurokoa edo hortik gorakoa diren nominak helbideratzea; dendetan Kutxabank txartelekin egindako kontsumoa urtean 3.600 eurokoa edo hortik gorakoa izatea; Baskepensiones BGAErako edo Kutxabank Pentsio Planerako ekarpena urtean 2.000 eurokoa edo hortik gorakoa izatea; etxebizitza-asegurua kontratatzea eta urtero mantentzea (horretan edukitzailearen kapitala 61.287 eurokoa da eta edukiaren kapitala 24.514,80 eurokoa); maileguaren hasierako nominalaren pareko gutxieneko kapitala duen bizi-asegurua kontratatzea eta urtero mantentzea.

Ohiko etxebizitza erosteko sartutako hasierako gastuak UTB Aldakorra kalkulatzeko legezko araudiaren arabera egin dira. Adibide honetan Euskal Autonomia Erkidegoan 1.724,89 € dira. Irekitze-komisioa: %0,25 da eta gutxienez 150 €; etxebizitza-asegurua priman estalitako edukitzailearen kapitala 61.287 eurokoa da eta edukiarena 24.514,80 eurokoa; eta urteko prima 234,34 eurokoa da. Bizi Asegurua: 100.000 eurokoa eta urteko prima 155,30 €. Tasazioa: 273,46 €. Gestoria: 272,25 €. Erregistroa: 414,54 € eta Euskal Autonomia Erkidego zergak: 0 €. Bezeroak kontratua formalizatzean ordaindu behar du kopuru hau.

Etxebizitza Asegurua Kutxabank Aseguradora SAUrekin kontratatu behar da eta Bizi Asegurua Kutxabank Vida y Pensiones SAUrekin. Kutxabank SA Banka Aseguruetako Operadorea da haien bitartekaria. Kutxabank, Kutxabank Vida y Pensiones aseguru-etxearen banka-aseguruen operadore bakarra da, eta Kutxabank Aseguradora SAUrekin jarduteko baimena du. Bitartekariaren Administrazio Erregistro berezian izena emana du, C0654A95653077 zenbakiarekin. Kutxabank Pentsio Planen bazkide sustatzailea eta Pentsio Fondeoen Gordailuzaina: Kutxabank SA. Pentsio Fondeoen Erakunde Kudeatzailea: Kutxabank Pensiones SAU.

Indarrean dagoen araudiarekin bat, pentsio-planetako bakoitzak bere Oinarritzko Datuen Agiria du haien partaideen eskura. www.kutxabank.es webgunean argitaratuta eta eguneratuta dago.

Kutxabank SAk mailegua onartu behar du. Ez ordaintzekotan, mailegu-hartzaileak eta, egotekotan, abal-emaileek hipotekadun etxebizitza edo/eta finka edo beste edozein berme gal dezakete, eta oraingo nahiz etorkizuneko ondasunekin erantzungo dute. Eskatutako baldintzak bete ezean, derrigorrezko etxebizitza-asegurua izan ezik, Euriborraren gaineko diferentzialak %1 handituko dira, UTB Aldakorra: %2,13. UTB Aldakorra erreferentziako indizeak aldatuko ez direlakoan kalkulatu dira. Hortaz, UTB Aldakorra interes-tasak berrikusiko direnean aldatuko da. Urtean behin berrikusiko da.



# JAURO

**B**ilbo-Gernika errepide ertzean, antxinako Errege Bidean, Oka jauregi errenazentista aurkitzen da, 1570-1580. inguruan eraikia. Errepidetik atzeko zati bat besterik ez da ikusten, iceberg bat emoten dau itsaso begetal batean. Halanda be, eskoialdeko bidea hartu ezker, jauregia eta bere edertasun guztia aurkituko dogu aurrez aurre. Bere fatxada bikainak, bere tamainuak eta armarriak, bere iragan garrantzitsua agerian jartzen dabe. Jauregi hau, orain Muxikaren jurisdikziopean, 1879. urterarte Gorozikako eleizatearen parte zan. Bere aurreko izena Torrebarri izan zan, baina XVIII. mende hasieran Oka izenpean agertzen da dokumentazioan.

# OKA EGIA



Bere kokakelua, gaur egun interesbakoa, garai baten bere sorkuntzaren eta oparotasunaren ardatza zan. Kokapen bereziak, "Ardoaren eta Arrainaren Bidea" Gorozikatik igarotzen zan puntu horretan, XIV. eta XV. mendeetan jende asko ibiltzen zan lekutik, Zugastietarako pasabidearen eta igoeraren kontrolpea eskaini eutseen bere jabeei. Beranduago, Bilbo-Gernika Errege bidetik hurbil egoteak bere protagonismoa bizirik irauteari lagundu eban. Leinu-etxearen antxinako jabea izan zan Jesús Apraiz Uria-ren arabera, fatxadaren aurrean kokatutako landan: *"...bere garaian, merindadera heltzen ziran ibilgailuek, zuzkitu eta zaldiak aldatzen ebezan bertan, jauregi-etxe honetako bizilagunen laguntzari esker... idi-buztarriak gehitzen ziran tiratze-animaliak indarbarritzeko, arazoak eukazan gurdiek Autzaganeko aldapak gainditu ahal izateko..."*

Bestalde, Oka ibaiatik hurbil egoteak Dorreak burdinola eta errota propioa izan ahal izateko energia hidraulikoa eskeini eutson. Bere jabeek, Oka familiak, 1498.urtean Edurretako Amaren baseliza eraiki ebeen, Marcos, Sebastian eta Antonio santuei eskeinitakoa, uzta onak izateagaz lotutako santuak, hain zuzen be. Edurretako Ama Birjinaren izenpea beranduago etorri zan. Izan be, XVII. menderate ez zan jaiegun unibertsala izendatu eta bere eskaintza errota mugitzeko eta burdinolarako uraren beharrazatik zetorren.

Oka leinua ez zegoen geografikoki ondo kokatua soilik, baizik eta sozialki be, gainontzeko leinu garrantzitsuekaz izandako ahaidetasun loturen bitartez. Izan be, Albizeko etxeagaz, Butrón, Lamiquiz, Ybargüen, Mugartegui eta Mazarredogaz senidetua izan zan, besteak beste. Maila gorena justifikatzeko, Oka familiakoek, Darío Oco izeneko errege pertsa baten ondorengoak zirela asmatu ebeen, Alejandro Magnok garaitu ebana. Euren zuhaitz genealogikoa apaindu eben mota ezberdineko gerlari baliotsu eta printzeekaz, Gozal Saoch de Oca-ra heldu arte, hots, Bizkaiko Jaurrerian Oka haranean etxea sortu ebana. Familiak postu azpimagarriak izan ebazan Jaurrerian, besteak beste, diputatu eta errejidore karguak.

Jauregitik hurbil, garaiko dorre-etxea zegoela uste da, defentsarako ezaugarriekaz. Honen ordez, beste bat eraiki zan, XV. mendeko 2.erdialdean hasitako etapa ekonomiko emankorraren sasoian. Geroago, jauregi errenazentista baten berregituratu zan. Horretarako, altuera beheratuz eta dimentsioak zabalduz, izaera erresidentziala emenez eta izaera defentsiboa kenduz.

Oka jauregia, harearri silarrizko bikaineko fatxadadun 2 solairuko eraikin dotorea da. Gainontzeko hormak halangaitz-hormak dira, XVI. mendean egindako birmoldaketen aurrekoak. Hego-ekialdeko fatxadan lehenengo solairurako sarbidea mantentzen da, bake garaietan bulegoetara sarrera zena. Etxeko armaria, manierista estilokoa, denboran zehar Oka leinura gehitu diren familia ezberdinen emaitza da.



# Elantxobe

**E**lantxobe, Ogoñoren (305 m) hego-ekialdeko mendihegalean kokatua, itsasorarte bajatzen da, antzina aktibitate bizia izandako portu txiki baten zabalduz. Bere kokapena eta fisonomiak, malda handidun kale txikiz josia, herri bitxiaren kategoria eskeintzen deutso. Turismorako bertute hauek, buruhauste bihurtzen dira auzokoentzako irisgarritasuna eta mugikortasuna bermatzeko orduan. Badira 25 urte errealitate honek soluzino trebe baten beharra ekarri ebalu, hots, autobusentzako plataforma birakorra.

Garraio publikoa hiritarren eskubidea da. Honi lotuta, Elantxoben dimentsio arazoei aurre egiteko alternatiba baten beharra sortu zan duela 25 urte. Herriko hirigintzak ez eban kale edo plazen handiagotzerik onartzen, baina autobusen tamaina geroz eta handiagoa zan. Udaleko ordenazio arauen berrikuspen unean, plazako eraikitze aurreikuspenek autobusaren biratzea ekidituko eban. Aukera desberdinak kontutan hartu ostean, eskari turistiko bihurtu dan plataforma birakorra aukeratu zan soluzio gisa.

Momentu hartan alkatea zan Josu Mendialduak gogoratzen dau Arau Subsidiarioen berrikuspena burutzeko Manuel Salinas arkitekto paisajista bilbotarra kontratatua zegoela eta orduan planteatu zala arazoa: *“Behatokiaren plaza orube batek mugatzen eban ezkerretatik, bertan eraikitze asmoa zegoen eta udaletxeak eraikin honegaz plaza erremetatu gura eban. Autobusaren bira ahalbidetzeko, eraikinaren behealdean*





# 360°

12.000 km egiteko beste erregai aurreztu dala esan daiteke. Honegaz batera, dagokien CO2 emisioak gutxitu dira eta kutsadura akustikoa be murriztu da. Izan be, plataformak isiltasunez egiten dau bira eta, bere kasuan, ibilgailuak egin beharko ebazan maniobra guztiak, ia 500.000, zarata handia sortuko eben. Sistema hau tren azpiegituretan erabiltzen dan soluzioa da, horregatik Josu Medialdua alkatea, proiektuagaz aurrera jarraitu aurretik, Renferekin kontaktuan jarri zan. Behin ideia ona zala ziurtatuta, Bizkaiko Foru Aldundira jo eban, eta honek beharrezko finantzazioa emon eban.

Gaur Josu Mendialduak irri batez gogoratzen dauz momentuko pasadizoak, horien artean, Salinas arkitektoak izandako ideia eraginkorra zeukala transmititu eutsun modua. *"Berak asko bidaiatzen eban eta behin San*



Josu Mendialdua, alkate ohia, Josu Olagibel gaur egungo alkatea eta Manuel Salinas arkitektoa

*lonja ireki batzuk sortzea pentsatu zan, hauetan autobusa sartu ahal izango zan beharrezko maniobrak burutzeko". Manuel Salinas arkitektoak be gogoan dauko: "Plan Berezia garatzen nengoen, hots, hirigune erdialdeko arazoak konpontzen nenbilen eta soluzino bat pentsatseko eskatu eusten. Plataforma birakor bat egitea bururatu jatan. Proiektua ingeniariatza batek sortu eban. Prozesu guztia oso bizkor kudeatu zala gogoratzen dot".*

Plataformaren soluzino errentagarria eta eraginkorra izan da. Mantenimendurako interbentzioren bat kenduta, sistemak 25 urte daramatza funtzionamenduan. Kalkulu arin bat eginda, Bizkaibus zerbitzuen frekuentziatik abiatuz, plataformak urtean 19.000 bira emoten dauzela estimatu daiteke eta historian zehar 490.000 buelta inguru emon dauzela. Bestalde, biraketa maniobran autobusak luzetara egiten dauen distantzia, autobusaren 12 metroak, eta biraketa kopurua kontutan izanda, 25 urteren buruan

*Francisco-ra edota beste lekuren batera joan zanean inspirazio gisa hartu eban zerbait ikusi ebala uste dot. Telefonoz deitu eta autobusa plazan buelta emoteko ideia bat zeukala esan eustan. Ideia zein den galdetu neutsonean telefonoz ezin eustala kontatu esan eustan, nigaz aurrez aurre egon gura ebala, jartzen neban aurpegia ondo ikusteko".*

Elantxobetarrentzako mugikortasun sistema eraginkorra eta ekologikoa da plataforma hau. Baina askoz gehiago be bada. Turistak be erakartzen dauz. Hauek autobusen helduera itxaroten dabe plazan bertan "biraketaren zeremonia" ez galtzeko, kuku erloju batek ordua eman dezan itxaroan dagoenaren gisa.

# Gurè antxoari kultua, hazten dagoen fenomenoa

Martxoan asaldura, ziurgabetasuna eta itxaropen sentimentuak agertzen dira geure portu eta merkatuetan. Antxoaren kosteraren hasiera da, euskal altxor gastronomikoa. Bizkaiko Golkoan arrain hau harrapatzeak "jaten ematen deutse" geure arrantzaleen familiei eta kontserben industriari be. Freskoak, sukaldaritzako bianda dira, mahaian zein sukaldean pasioa eta aldakortasuna ekarriz.





Antxoa, bere zapore eta ezaugarri elikagarriengatik, arrain urdin estimatuenetakoa da. Bereziki gomendagarria da umeen, nagusien, kirolarien zein haurdun dauden emakumeentzako. Organismorako onuragarriak diren bere ezaugarrien artean: omega3 eta ez-saturatutako gantz-azidoen ekarpena, kolesterola erregulatzeko eta odolaren jariakortasuna hobetzeko bikainak, kaltzioa eta A bitaminak be eskeintzen dauz.

Bere izen zientifikoa *Engraulis encrasicolus* da, txitxarro eta sardinaren familiako espeziea da. Moltsoetan taldeka bizi da, 100 bat metrotako sakonerako zonaldeetan. Udabarrian eta udan azaleratu egiten dira ugaltzeko helburuaz eta udagoienera sakontasunetara egiten dabe buelta. Adituek, antxoaren biziraupena ziurtatzeko honen eboluzioa aztertu eta kontrolatzen dabe.

## Freskoa ala kontserban

Kantauriko antxoa preziatuena dogu, bere zapore edota textura berezia dala eta. Arraindegietan aurkitzea ez da eguneroko gauza, baizik eta bere kultura sustatzen dauen berezitasun bat. Sukaldaritzan esker oneko produktu itzulkorra izateaz gain, imaginazioaz jolasteko margena eskaintzen dau, hots, lantzeko modu ezberdin asko. Errezeta ugari erabiltzen dira antxoa sukaldatzeko, guztiak bikainak. Freskoak, suabeak eta bigunak direnean, frijiturik, urunetatik pasatuak, pil-pilean, marinela eran, nahasiak, saltsa berdean edota baporez eginda dastatu daitezke.

Kontserban, edozein momentutan goza daitezke, sasoiatik kanpo be. Oliotan eta gatzetan zein ozpinaz, zapore sendoa eskaintzen dabe. Kontserbazio prozesu on batek artisauro lana eskatzen dau, pazientziagaz egindako lan fina. Usadioen arabera geure arrantzaleen emakumeek egiten eben lan hau, kontserba industria profesional baten bitartez. Horri esker da posible produktua urte osoan zehar eskuragarri izatea. "Gilda" ospetsua ezin da alde batera utzi bez, 1946.urtean, bezero batek Donostiako taberna batean sortu eban pintxoa.

## Anisakidak be gustukoa dau geure antxoa

Arrain fresko, gordin edo marinatua kontsumitzeko tendentziak anisakidagaz bat egiteko arriskua handitzen dau. Geroz eta arrain espezie gehiagori egiten deutso kalte parasito honek. Horien artean lebatza, bakailoa, itsas-oilarra, zapoa eta geure bokarta be. Kentzea nahiko erraza da jan aurretik 48 orduz hozten badoguz. Arraina frijitua edo labean kontsumitu ezker, ohikoena, parasitoak bizirik ez irautea da.

## Kontserban

**Gatzetan:** Erarik zaharrena da, historikoki ohikoena.

**Oliotan:** Kontserban jateko erarik ohikoena.

**Antxoa oliotan ketuak:** Ontziratua izan aurretik, pagoaren zuraz kemindutako tratamendua ematen jago, honek zapore bitxi bat eskainiz.

**Ozpinean:** Behin garbi daudela, ozpinetan sartzen dira.

## Freskoak

**Frijituak:** Garbitu, tripak kendu eta gatza bota besterik ez da egin behar olio berotan dagoen sartagin batetan frijitu aurretik.

**Pil-pilean:** Erdiko arantza kendu ostean sartainean salteatzen dira, berakatz ugari eta piperminegaz.

**Nahasiak:** Bereziki gomendagarria txikiak direnean. Erdiko arantza kendu eta arrautzaz prestatzen dira.

**Albardatuak:** Garbitu, zabaldu eta arantza kendu ostean, urun eta arrautzaz albardatu eta olio berotan sukaldatzen dira.

## Ba al zenekien?

- Antxoa espezie haragijalea da, plankton eta molusku txikien larbak zein krustazeeo txikiak jaten dauz.
- Elikadura balio altua dauka: %12a besterik ez da koipea, oso karbono hidratu gutxi, burdin asko, sodioa, potasioa, fosforoa, kaltzioa eta A zein B bitaminak eskeintzen dauz.
- XV. medean espezia gisa erabiltzen ziran, limoia edota kaparrondoak bezalaxe.
- Lurrerako "ongarri" bezala be erabiliak izan dira.

# MARROIAGAZ... BERDEAGO!

## 5. Edukiontziatik ortura, zaborraren ahalmena

**G**ero eta hondakin gehiago sortzeak gaur egungo gizartearen ingurugiro arazo handienetakoa suposatzen dau. Geure ingurunea zaintzeko eta prozesu horretan papel aktibo bat betetzeko dogun bidea birziklatzea da. Zentzu honetan, bai instituzioek eta baita herritarrok be, egunetik egunera berdeagoak izateko erantzukizuna daukagu. Birziklatzeko helburuaz, materia organikoa bereiztea gakoa da. **5. edukiontzia ezarpena beharrezkoa da.**

Egunero sortzen dogun hondakinetatik %40a organikoa dela estimatzen da, beraz, konpostaren bitartez aprobetxatu beharreko balioa dauka. Materia honek barriro be lurrera buelta egitea, konpost zein abonu gisa, geure esku dago. Birziklapenagaz giza-konpromisoa izatea beharrezkoa da eta honen kudeaketa egokia lortzea. Bere jatorria lurrean daukon materiagaz lurra birsortzeari laguntzeko lehenengo pausuak emon dabez jada Busturialdeko udalerrri gehienek.

Apustu honen bitartez, zabortegietan jaurtitako zarama gutxitzen dogu; materia organikoaren bizi zikloa zarratzen dogu, hots, lurzorura bueltatuz; kalitate handiko ongarria lortzen dogu, hau da, kimikorik gabekoa, elikagaietan aberatsa. Eta bide batez, aurreztu be egiten dogu. Materia organikoaren birziklapenari esker, naturak bere bidea

jarrai dezan ahalbidetzen dauen katea mantentzen dogu eta bere lana egiten uzten deusagu. Konpostaia prozesu naturala dogu. Honen bitartez, mikroorganismoek materia organikoa konpostean eraldatzen dabe, gure lorategi edota barazketan erabili daikegun ongarri naturala.

Geure etxeetan sortutako materia organikoa biltzeko 5. edukiontzia edota edukiontzi marroia ezarri eban lehenengotarikoen artean dago Euskadi. Horretarako, ezinbestekoa da geure instituzioen konpromisoa. Bizkaian gero eta ugariagoak dira konpost-egiten dabezen udalerriek. 2015. urtean materia organiko biodegragarriaren 4372 tona batu ziran Bizkaian, konposta egiteko. Bizkaiko Uri Hondakinak Kudeatzeko Plan Integralak konpostajerako hondakinen %4aren bilketa estimatzen eban 2016. urterako.

Urte honetarako, 2017. urterako, Bizkaiko Foru Aldundiak, milioi bat eurotako partida ekonomikoa aurreikusit dau, udalak eta mankomunitateei laguntza eskeintzeko edukiontzi marroiaren erabilera aktiboagoa sustatzearen alde egiteko. Hondakinen sorrera gutxitzea eta hauen kudeaketa hobetzea helburu estrategikoa da Bizkaientzat. Helburu espezifikoaren artean, pertsonako hiri hondakin kantitatea gutxitzea eta konpost-egiteko materia organikoaren aprobetxamendua suspertzea dagoz.



 **Visit Urdaibai**  
© bai Nueva Europa

**IBILBIDE  
TURISTIKOAK**  
Kulturalak eta ekologikoak top

KARTARA, **UMEEKIN**  
URTE GUZTIAN ZE HAR

Erreserbak: [www.visiturdaibai.com](http://www.visiturdaibai.com)



**EUSKAL  
SOUVENIRS**

Andra Mari kalea s/n.  
48300 **GERNIKA**

946 251 930 - 685 758 102

[euskal.souvenirs@gmail.com](mailto:euskal.souvenirs@gmail.com) [www.euskalsouvenirs.com](http://www.euskalsouvenirs.com)



Gaur egun, hondakin organikoen kudeaketa martxan jarri dabezen 78 udalerrri badira Bizkaian. Busturialdean, Arratzu, Gernika-Lumo, Busturi, Ea, Elantxobe, Foru, Gauegiz Arteaga, Ibarregelu, Kortezubi, Mendata, Mundaka eta Muxikan, besteak beste, martxan jarri dabe hondakin organikoen birziklapen sistema. Herri hauek, edukiontziak ezartzen doaz eta sesio informatiboak eskaini dabez herritarren inplikazioa sustatzeko. Herritarrek birziklatze-kit bat doan eskuratzeko aukera izan dabe: poltsa konpostagarriak, etxerako ontziak, giltzak, autokonpostagailuak eta aireagailuak. Kit honi ezinbesteko baliabide bat gehitu behar jako: norbanako konpromisoa.

Birziklatzen doguzen hondakin organikoak *Bizkaiko Konpostegira* eramaten dira, honen arduraduna Garbiker da. Azken honek, onartutako eta onartzen ez diren hondakinak azaltzeko araudia dauka. Informa zaitez eta parte hartu...

## ONARTUTA

- **Etxeko biohondakinak:** kozinatu bako jatorri begetaleko hondakinak (barazkiak, frutak, zerealak.); ogia, sukaldeko papera (tinta bakoak), infusio-poltsatxoak eta kafe hondarrak, kortxozko tapoiak, eta abar.
- **Landare-hondakinak:** baratzeko hondakinak, lorak, adarrak, eta abar. (Palmondoaren hostoak, panpa belarra eta indikainaberak EZ).

## EZ ONARTUTA

- Haragi, arrain eta itsaskien janondarrak (koinatuak edo kozinatu bakoak).
- Olioak.
- Esnekiak.
- Zigarro puntak.
- Koloretako paperak.
- Korotzak.
- Pinturak.

# 5. Edukiontzi Organikoa



 **Busturialdeko**  
mankomunitatea

**Jasangarritasunagaz bat!**

**Arratzu Elantxobe Gauegiz Arteaga Ibarregelu**  
**Kortezubi Mendata Muxika**

94 625 68 84 - 94 625 47 22 / [busturialdekomankomunitatea@bizkaia.org](mailto:busturialdekomankomunitatea@bizkaia.org)

# MURUETAKO SOKATIRA TALDEA, konpromisoak eta ilusinoak sokatik tiratzen dabe

Murueta Sokatira Taldea hasierako urteetan.

**E**rronka, indarra eta batera egindako esfortzua sokatiraren erakargarritasun nagusiak dira. Tradizioa eta ikuskizuna hainbana, Muruetako Sokatira Taldekoek mundura zabaldu jakin dabeena. Euren sekretua, bizitzan bezala, konpromisoa eta ilusinoa.

2009. urtean Busturialdean sokatirea berreskuratzeko ekimena martxan jarri zenean, Foru, Errigoiti, Mendata eta Kortezubigaz batera parte hartu eban Muruetak. Sokatirea plazaratu eta udalerrien arteko desafioko berreskuratzea zan asmoa, hartuemonak sendotzeko. Zortzi urtez

geroztik Muruetakoa martxan dagoen talde bakarra da, berme osoz eta handitasunez. Murueta Sokatira Taldea bi urtez jarraian Euskadiko Txapelduna izan da gomazko modalitatean eta horrela parte hartu dau mundu mailako lehiaketetan, Ipar Irlandan eta Holandan. Esperientzia apartekoa izan da. *"Sokatira mundiala da. Eta Mundiala be mundiala da". Han dagoz munduko tiratzailerik onenak eta guztiak diferentek gara. Euskal Herrikoak bereziak gara, era bat daukagu tiratzeko, Ipar Europakoek euren era dekiele eta gero txinatarrak, guztiz apartekoak*", azaltzen deuskue taldekoek.

Busturialdeko herrien arteko sokatira txapelketaren hasierak gogo onez gogoratzen dabe taldean. Izan be, Muruetak hartu eban txapelketa horren lehen



Busturialde,  
**EUSKARA** eta  
**URDAIBAIEN alde**

norgehiagoka, bere azoka egunean. "Gure sustraiak hortik datoz, eskualdean kirol hau berreskuratzeke martxan jarri zan herrien arteko liga horretatik. Bere momentuan lortu genduen benetan polita izen zan. Nik orduko irudi politagoak dekotez azkenengo hiru urteetan Euskadin eta Mundialetara joatearenak baino. Ilusioa handiagoa zan. Plazan horrenbeste jende batzea eta animatzen egoteak emoten deustu indarra", gogoratzen dau Ramon Gezuragak tiratzaile muruetarra. Izan be, Muruetan gustura piztuko ebeen barriro be sokatirearen zaletasuna eskualdean. "Horretarako Murueta bada erreferentea, piztuteko ahalmena badekogu, gure partetik prest gagoz guk dakigune erakusteko".

Hasiera haiek ahaztu barik, Muruetako Sokatira Taldea kirol honen elitean dago. Maila honek konpromiso eta partaidetza handia eskatzen dau. Orain arte lortutakoagaz pozik dagoz eta horretarako, bizitzan bezala, iraukortasunez eta ilusinoaz lan egitea dala giltzarria uste dabe. Murueta Sokatira Taldea bera bakarrik hazi da, beste tiratzaileak nola egiten ebeen ikusita ikasi dabe taldekoek tiratzeko teknika. Euskadiko txapelketetara orain hiru urte emon ebeen, Busturialdean kontrako talde barik geratzean. Kirol hau pasioaz praktikatzen jarraitzeko aukera bakarra federatzea eta Euskadi mailan parte hartzea zan. Exijentzia maila *in crescendo* joan zan, "Sokatirak dekon exigentzia forman egon behar zarela da. Taldeagaz astero 3 egunetan entrenatzen dogu ta zapatuan, jai eguna ez bada be bai. Gero exigentzia indibiduala be bada eta bakoitzak preparazio fisikoa egin behar dau. Exijentzia maila igotzen da pisu ezberdinen kategorietan parte hartzeko argaldu egin behar garenien. Hor konpromisoa handia daukagu".

Elitean jarraitzea erronka bat da baina desafioa ekipoa mantentzea da eta tiratzaile barriak egitea, Murueta Sokatira Taldearen etorkizuna bermatzeko. Hau lortzeko, eskualdeko bizilagunak kirol honetara hurbiltzera animatzen dabez. Euren ikasitako guztia irakasteko prest dagoz abentura hau batera bizitzeko, izan be, "sokan lekue sobran dago".

Murueta Sokatira Taldea 20 lagun osatzen dabe, 17 eta 50 urte bitartekoak. Adin tarte handi honi esker sokatiraren pisuko lau modalitate ezberdinetan parte hartzeko konbinazio ezberdinak egiteko aukera izan dabe: 680 kilo, 640 kilo, 600 kilo eta 560 kilo.



Murueta Euskal Herriko sokatira txapelkun, 680 kilotan (2017).  
Argazkia: Murueta Sokatira Taldea

## Murueta Sokatira Taldearen kideak

Inaxio Alberdi (entrenatzailea), Juan Felix Bastegieta, Jon Eskibel, Iñaki Ugarte, Ramon Gezuraga, Imanol Etxebarria, Kepa Zubizarreta, Ibai Bilbao, Desiree Iglesias, Igor Auzokoa, Kevin Iradier, Jon Loizaga, Koldo Urresti, Kebin Granados, Kimetz Urkijo, Beñat Esnal, Jon Goitia, Ager Iturbe, Urtzi Palomares, Eneko Allika, Ibon Agirre.

## Ba al zenekien...?

- Sokatiran 8 laguneko talde bi alkarren aurka egiten dabe, soka lodi baten ertz bietan, aurkaria ezarritako marka bateraino eramateko.
- Frogak goman ala lurrean egiten dira. Pisu libre zein mugatuan (680k, 640k, 600k y 560k).
- Debekatuta dago soka gerrian lotu edota sorbaldan jartzea, bakarrik azken tiratzaileak egin ahal dau.
- Desafioetan bi tirakada egiten dira, taldeak kalez aldatuz.
- Nazioarteko Sokatira Federazioa dago.
- Sokatira 1900-1920 urteetan espezialitate olinpikoa izan zan.


# URDAIBAI

©MAGAZINE

[www.urdaibaimagazine.eus](http://www.urdaibaimagazine.eus)

## Zure Aldizkaria





so ocurrido al Capitan D. Pedro de Garay en el Bergantín Español "Piedad" los días  
entre del año 1854 en alta mar en la latitud 27° 30' N y long. 63° 30' O o sea en  
que comprende la Isla de Cuba y las Antillas

### Tercera visita guiada

Exposición

**EXVOTOS DE BIZKAIA**

**Creencias de la Mar**

De la mano de Xabier Armendariz

20 de Abril, a las 7 de la tarde

Entrada gratis, Imprescindible apuntarse

### Hirugarren bisita-gidatua

Erakusketa

**BIZKAIKO BOTO-ESKAINZAK**

**Itsasoko sinismenak**

Xabier Armendarizen gidaritzapean

Apirilak 20, arratsaldeko 7etan

Sarrera doan; Derrigorrezkoa izena emotea

